

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2920

1098/2025 EBAZPENA, ekainaren 20koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen diren medikua kategorian (barne medikuntzako fakultatibo espezialista mediko lanpostu funtzionala), 2020-2021-2022ko EPEan txanda ireki bidez estatutupeko lotura finkoa lortu duten esleipendunen izendapena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2020-2021-2022ko eta Egonkortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak (2022ko abenduaren 19ko EHAA, 240. zk.). Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1510/2024 Ebazpenak aldatu zuen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1762/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren medikua kategorian (barne medikuntzako fakultatibo espezialista mediko lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan, estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko zituzten oinarri espezifikoak (2022ko abenduaren 27ko EHAA, 246. zk.). Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1511/2024 Ebazpenak aldatu zuen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 20ko 1068/2025 Ebazpenaren bidez, argitaratu egin ziren medikua kategorian (barne medikuntzako fakultatibo espezialista mediko lanpostu funtzionala), 2020-2021-2022ko EPEan txanda ireki bidez hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 31ko 561/2025 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeak gaitu ziren, beharrezko izapideak egin ditzaten Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuetan esleitutako destinoez jabetzeari dagokionez, 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEtan deitutakoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren 16. oinarrian xedatutakoarekin bat etorritik, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da izangaien behin betiko ebazpenaren I. eranskinean jasotako esleipendunak estatutupeko langile finko izendatzeko ebazpena, indarrean dagoen legeriak langileen arloan emandako ahalmenez baliatuz.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EHAAan argitaratzeko agintzea eranskinean jasotako esleipendunak estatutupeko langile finko izendatu direla, 2020-2021-2022ko EPEaren txanda ireki bidez, medikua kategorian (barne medikuntzako fakultatibo espezialista mediko lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute dagokien destinoaz jabetzeko, Ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Esleitutako destinoaren zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritzan hartu beharko da destinoaren jabetza. Horretarako, izangaiak zita eskatu beharko du lehenbizi, eta egintzan dokumentazio hau aurkeztu:

– NANA, pasaportearen edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Europar Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetakoz nazionalentzat.

Parte hartzeko eskubidea izanik Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen dien dokumentua aurkeztu behar dute, eta, beste Estatu bateko nazionalitatea duen norbaitekiko ahaidetasun-lotura izan edo haren kontura biziz gero, lotura hori dutela egiaztatzen duten dokumentuak ere bai. Era berean, ezkontidearen zinpeko aitortpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, ezkontideaz zuzenbidez bananduta ez dagoela adierazteko, eta, hala badagokio, izangaia bere kontura bizi dela edo bere kargura dagoela adierazteko.

– Elkargokide-egiaztagiria, deialdiko oinarri espezifikotik hala eskatzen denean.

– Diziplina-espeditente bidez hautagaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako ezgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzematea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek, Espainiako Estatuari buruzko deklarazioaz gain, zinpeko deklarazioa edo hitzematea aurkeztu behar dute, esanez ez daudela eginkizun publikoetarako desgaituta edo antzeko egoera batean, eta orobat haien Estatuan, baldintza beretan, funtzio publikora sartzeari eragozteko moduko diziplina-zehapen edo baliokiderik ez dutela.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetza-Prebentzio Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa; eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak edo agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatutupeko langile gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesdunei jakinarazten zaie, lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokion epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dituela hauta-probei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkion eskubideak.

Orain arte adierazitakoari jarraituz, izangaiek lanpostuaz jabetzen badira, egin beharreko eginbideak egin eta hurrengo egunean hasiko dira lanean, esleitu zaien zerbitzu sanitarioetako erakundean.

Laugarrena.– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 20a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
SUSANA LÓPEZ ALTUNA.

2025eko ekainaren 30a, astelehena

ERANSKINA
2020-2021-2022 OSAKIDETZAKO ENPLEGU PUBLIKORAKO
DESTINO BATEN ESLEIPENA LORTU DUTEN PERTSONEN ZERRENDA
FAKULTATIBO ESP. BARNE MEDIKUNTZAKO MEDIKUA
TXANDA IREKIA OPOSIZIO LEHIAKETARAKO BLOKEA

NAN/AIZ	Izangaiak	Destino esleitua	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***5680**	Etxeberria Lekuona, Daniel	Donostialdeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)- Ospitaleko arreta / Donostiako Unitbert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Zerbitzu Klinikokoak-Barne-medikuntza-Barne- medikuntza / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Besterik gabe	2 2013-12-03
***0525**	Lasa Inchausti, Begoña	Goierri-Urola Garaiko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)- Ospitaleko arreta / Zumarragako Ospitalea-Zumarraga / Zerbitzu Klinikoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2 2019-12-03
***2555**	Portales Fernandez, Isabel Maria	Barakaldo-Sestaoko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)- Ospitaleko arreta / San Eloy Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Klinikoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Besterik gabe	2 2020-12-03
***7693**	Millan Estebanez, Maria Esther	Barrualde-Galdakao ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)- Ospitaleko arreta / Galdakao-Usansoloko Ospitalea-Galdakao / Zerbitzu Klinikokoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez- Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2
***8759**	Vega Jimenez, Luisa Fernanda	Santa Marina Ospitalea / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)- Ospitaleko arreta / Santa Marina Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2
***4633**	Corcuera Martinez de Tobillas, Iñigo	Goierri-Urola Garaiko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)- Ospitaleko arreta / Zumarragako Ospitalea-Zumarraga / Zerbitzu Klinikoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2

2025eko ekainaren 30a, astelehena

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitua	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***9450**	Lizarraide Palacios, Eva	Gorizko Ospitalea / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Gorizko Ospitalea-Gorliz / Zerbitzu Klinikokoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Besterik gabe	2
***9956**	Manovel Nogueiras, Maria Jose	Barakaldo-Sestaoko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / San Eloy Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Klinikokoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Besterik gabe	2
***8096**	Sanjuan Lopez, Ainhoa Zuriñe	Gorizko Ospitalea / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Gorizko Ospitalea-Gorliz / Zerbitzu Klinikokoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Besterik gabe	2
***6586**	Rodriguez Iturriaga, Judit	Barakaldo-Sestaoko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / San Eloy Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Klinikokoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Besterik gabe	2
***9905**	Berroeta Iribarren, Ander	Debarreneko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Eibarko Ospitalea-Eibar / Mendaroko Ospitalea-Mendaro / Zerbitzu Klinikokoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2
***2592**	Ayensa Diaz, Jose Luis	Donostialdeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Zerbitzu Klinikokoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Besterik gabe	2
***8452**	Orbe Narvaez, Gurutz	Santa Marina Ospitalea / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Santa Marina Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikokoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2
***5604**	Ceberio Hualde, Leticia	Gorizko Ospitalea / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Gorizko Ospitalea-Gorliz / Zerbitzu Klinikokoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Besterik gabe	2

2025eko ekainaren 30a, astelehena

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitua	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***0170**	Aizpurua Manso, Izaskun	Santa Marina Ospitalea / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Santa Marina Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2 2023-02-20
***0305**	Lopez Osle, Nuria	Santa Marina Ospitalea / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Santa Marina Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2 2022-11-20
***7698**	Saez de Adana Arroniz, Esther	Santa Marina Ospitalea / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Santa Marina Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2
***7702**	Areses Manrique, Maria	Santa Marina Ospitalea / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Santa Marina Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2 2018-06-20
***7262**	Mellado Ferreiro, Maria	Santa Marina Ospitalea / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Santa Marina Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2
***1573**	Garcia Martinez, Silvia	Santa Marina Ospitalea / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Santa Marina Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2
***7853**	Urcelay Rojo, Miren	Arabako Errioxako ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Lezako Ospitalea-Laguardia / Zerbitzu Klinikoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2 2018-12-03
***4848**	Fernandez Linares, Hugo	Gorlizko Ospitalea / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Gorlizko Ospitalea-Gorliz / Zerbitzu Klinikoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Besterik gabe	2 2023-02-20

2025eko ekainaren 30a, astelehena

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitua	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***2200**	Sanchez Saez, Cristina	Arabako Errioxako ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Lezako Ospitalea-Laguardia / Zerbitzu Klinikoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2
***4633**	Aranguren Arostegui, Asier	Bizk. Os. Mentaleko Sarea / Osasun Mentaleko Sarea-Ospitaleko Arreta / Bermeoko Ospitalea-Bermeo / Zaldibarko Ospitalea-Zaldibar / Zamudioko Ospitalea-Zamudio / Zerbitzu Klinikoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Besterik gabe	2
***4623**	Suarez Cuervo, Carlos	Arabako Errioxako ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Lezako Ospitalea-Laguardia / Zerbitzu Klinikoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2
***6458**	Vidal Nuñez, Cristian Jose	Bizk. Os. Mentaleko Sarea / Osasun Mentaleko Sarea-Ospitaleko Arreta / Bermeoko Ospitalea-Bermeo / Zaldibarko Ospitalea-Zaldibar / Zamudioko Ospitalea-Zamudio / Zerbitzu Klinikoak-Barne-medikuntza-Barne-medikuntza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Besterik gabe	2